


Ura eta Mendiorotz

MENDIOROTZ

- Iturriak
- Latsagiak eta aska
- Ibaiak eta errekek
- Uharkak eta putzuak
- Elur-zuloa
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa
- Argazkiak



ITURRIAK

Mendiorozko dermioan hainbat iturri daude, eta Fuente Chiquita (Iturritxipia) esaten diote iturri nagusiari, hartatik hornitu baitziren herri goieneko etxeak XX. mendeko hamarkada luzeetan, 1957. urtera arte; iturriko soberakinetik hornitzen ziren herri barreneko etxeak.

Oianzulo peko beste iturri bati ere Fuente Chiquita (Iturritxipia) esaten diote.

Iturrietako zenbaitek izenean daramate izana, hala nola, Mariturri, Iturzar eta Masakiturri. Azken hori, bai eta Obietako iturria eta Frailearena ere, Erantsusko mugan daude (Eguesibar). 1924. urtera arte, ura iturritik baldeka ekartzen zen. Baziren zamarien laguntzarekin ekartzen zutenak ere.

1949an lehorten handi bat izan zen eta iturriari atea eta giltzarrapoa paratu behar izan zizkioten ura herritar orori behar den gisan banatu ahal izateko.

Zortzi urte geroago, etxebizitzetako ur-horniketa egin zen.

Egungo iturria San Pedro kalean dago, frontoi ondoan, eta 90eko hamarkada bukaeran eraiki zuten, auzolanean.

LATSAGIAK eta ASKA

Ura herrira 1924an ekarri zen. Lehenik aziendari edaten emateko aska bat betetzen zuen eta, ondoren, latsagia. Horrek aurrerapen handia ekarri zuen herritarren eta, bereziki, emakumeen bizi-kalitatean, izan ere, ordura arte, lixiba inguruko erreketan egin behar izaten zuten, uda ala negu. Herritarrek diotenez, askako eta latsagiko hustubideko urarekin ureztaturiko baratzeek ematen zuten barazkirik ederrena.

IBAIK, ERREKAK

Mendiorotzek, Iparretik Hegora, bi erreka ditu albo banatan: Oianzuloko erreka (haren ertzean egin zen errepide nagusirainoko bidea) eta Txorrotxagako erreka, Urotz aldera egiten duena. Argingoko errekearekin elkartzen delarik izenez aldatzen du. Hilabete beroenetan, ur-emaria ia erabat galtzen dute.

Mendiorozko etxeetako batean bada bitxikeria bat. Herriaren barreneko etxe horrek bi isurki du: mendebaldeko urek Oianzuloko erreka egiten dute eta, Bortzeuntzeko errekearekin bat eginez, Argaren adar den Urbi ibaira. Aldiz, ekialdeko isurkiko urek, Txorrotxagako errekatik Erro ibaira egiten dute. Erro ibaia Iratiren adarra da eta Irati, berriz, Aragoi ibaiarena. Hala, teilatu bizkar berak bereizten dituen euri tantak ez dira Ebron baizik berriz elkartuko.

UHARKAK eta PUTZUAK

Herrian badira putzua duten etxeak. Zenbaitek etxe barnean eta beste batzuek kanpoaldean, baina beti ere etxetik hurbil.

80ko hamarkadatik aurrera, hainbat igerileku pribatu eraiki dira.

Mendinueta Soluzioaren bidez ur-horniketaren instalazio berria egin zenean, sare zaharreko ahoetako bat nekazaritzako lurrak ureztatzeko baliatu zen.

ELUR-ZULOAK

Iparraldean, mendiko ospelean, bazen elur-zulo bat. Txikia zen eta, hala, bertako izotza herria hornitzeko baliatu bide zen. Oraindik orain ikusgai daude harrizko hormak.

Ez da aurkitu erabilerari buruzko dokumentaziorik.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Mariturri, Iturzar eta Masakiturri.

UR-HORNIKETA

1957an ekarri zen ura eta saneamendua etxeetara, Nafarroako Foru Diputazioaren laguntzarekin.

Iturririk gorenean ur-biltegia egin zen, ura goreneko etxeetara irits zedin. Soberakina, horniduraren gainerakoari gehitzen zitzaion. 2014tik ura Itoiztik ekartzen da eta, hala, iturriek zerbitzu hori emateari utzi diote. Nolanahi ere, nekazariak oraindik ere baliatzen dituzte, premia egoeretan.

ARGAZKIAK



Elur-zuloa